

Bezeroekiko harremanak

Gure ezaugarri nagusietako bat bezeroekiko izango dugun harreman zuzena gu geu izango garela da. Enpresaren sortzaileok zuzenean gure proiektuaren aurkezleak izango gara, inguruko diskoteketara jo eta ezagutzera emanaz.

Argi dago gaur egun bide eta tresna asko ditugula gure proiektua ezagutzera emateko eta jendearekin lotura izateko (sare sozialak, kartelak, ahoz ahoko komunikazioa, batzarrak, hitzaldiak...). Horrez gain, aplikazio bertan foro bat utziko dugu eguneko 24 orduetan irekita egongo dena. Foru honetan bai bezeroak (diskotekak) eta kontsumitzaileak (diskoteken bezeroak) parte hartzeko aukera izango dute.

Diskotekekin izango dugun harremana zuzenekoa izango da, kontaktuan jarriko gara haiekin bai sarrerak saldu aurretik zein ondoren. Horrez gain, kontaktuan jarri eta aste bakoitzeko balorazio konstanteak alde batera utzita, eskakizun eta proposamen berriei garrantzia handia emango diegu baita Harreman hauek aurrera eraman ahal izateko, telefono zenbaki bat eta e-mail bat izango dugu diskotekak gurekin zuzenean kontaktuan jartzeko.

Bestalde, diskoteketan ateratako argazkiak aplikazio bertan igotzeko aukera izango dute, modu horretan haien bezeroek argazkiak lortzeko modua erraztuko diegu. Gaur egun duten lortzeko metodoa ia ezezaguna da, kontsumitzaileek ia beti ez dakite nola eta non sartu behar diren argazkiak lortzeko.

Gure eskaintza guztietan feedback harremana nahi dugu elkarreraginean lan egin eta ikasteaz gain gozatzeko asmoz.

Gure proiektuan interesa duten guzti horiekin harremana etengabekoa izan dadin, sare sozialez, eta aplikazioko foroaz gain, noizbehinkako asanblada irekiak egingo ditugu ideia berriak proposatu, aurrekoak baloratu zein esperientziak konpartitzeko. Era honetan nahi duenak egiten dugun guztiaren gainean informatuta egon ahal izango da.

